



PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Literatur Lehiaketa deitu du, narrazio laburrak edo olerkiak aurkez ditzaten

Iaz 121 lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta aurten apirilaren 30a da lanak aurkezteko mugaeguna

Iruñeko Udalak Gazteendako Literatur Lehiaketaren edizio berria deitu du, 14 eta 18 urte bitarteko gazteek narrazio laburrak edo olerkiak aurkez ditzaten. Lehiaketaren hogeita zortzigarren edizioa da, eta euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako lanak aurkez daitezke. Lanak aurkezteko epea zabalik da, eta apirilaren 30ean amaituko da, 14:00etan.

Bizitokia edo ikastetxea orain Iruñean duten gazteek hartzen ahal dute parte. Bi kategoria ezarri dira, parte-hartzaileen adinaren arabera. Lehenengoan sartzen dira 14, 15 eta 16 urteko gazteak, hots, lanak aurkezteko mugaegunean 14 urte beteta eta 17 urte baino gutxiago dutenak. Bigarrenean, 17 eta 18 urteko gazteak, betiere 17 urte beteta eta 19 baino gutxiago badute apirilaren 30ean.

Adinaren araberako kategoria bakoitzean bi modalitate daude: poesia eta narrazio laburra. Poesia modalitateen, lanen luzerak 14 lerrotakoa izan beharko du gutxienez, eta 40koa, gehienez ere. Narrazio laburrek, bere aldetik, 2 orri izan beharko dituzte gutxienez, eta 5 gehienez ere, alde bakar batez idatziak eta lerro artean tarte bikoitza utzirik.

Lan bana aurkezten ahalko da modalitateko, hizkuntza bakoitzean. Idazlanek gai librea izanen dute, gaztelaniaz edo euskaraz idatziak. Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Ezin izango da lan bera bi hizkuntzetan aurkeztu.

Sariak modalitate guztietarako

Lehiaketaren oinarriek ezartzen dutenarekin bat, hiru sari egongo dira modalitate eta kategoria bakoitzeko hiru lanik onenendako. Lehen sariak 500 euro joko dute; bigarrenak, 250 euro, eta hirugarrenak, 150 euro. Halaber, epaimahaikideek modalitate eta hizkuntza bakoitzeko bina accesit ematea proposatzen ahalko dute, bakoitza 100 eurokoa. Epaimahaiaren erabakia izango da sari bera ex aequo ematea zenbait lani.





luz 121 lan aurkeztu ziren, eta 2016an ere kopurua antzekoa izan zen, 124 lan aurkeztu baitziren.

Lanak aurkezteko, Iruñeko Gaztediaren Etxeko Gazteendako Informazio Bulegora (Zangoza k., 30) helarazi beharko dira. Parte-hartzaileek lan bakoitzeko bost kopia aurkeztuko dituzte gutun-azal itxi baten barruan, izenorde batekin sinaturik eta kopia bakoitzean lehiakidearen adina adierazita. Gutun-azalaren kanpoaldean *Iruñeko Gazteendako 2018ko Literatur Lehiaketa* testua idatzi beharko da, eta beste datu hauek: hizkuntza, modalitatea, lanaren izenburua, ikurritza edo izenordea eta egileak apirilaren 30ean duen adina.

Gutun-azal horren barnean beste gutun-azal bat sartuko da, itxita; horren kanpo aldean egilearen izenordea idatziko da, eta barruan egilearen datu pertsonalak adieraziko dira: izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta ikastetxea (egilea ez bada Iruñean bizi).

IRUÑEKO GAZTEENDAKO XXVIII. LITERATUR LEHIAKETA. 2018. URTEA

- **Baldintzak:** bizitokia edo ikastetxea orain Iruñean duen gaztea izatea, 14 urte beteta eta 19 urte baino gutxiago edukitzea lanak aurkezteko mugaegunean (apirilak 30).
- **Modalitateak:** narrazio laburra eta poesia, gaztelaniaz zein euskaraz. Kategoria bat egongo da 14, 15 eta 16 urteko gazteendako, eta beste bat 17 eta 18 urtekoendako.
 - Narrazio laburra: 2 orri gutxienez, eta 5 gehienez, bakarrik alde batetik eta lerro artean tarte bikoitza utzirik.
 - Poesia: 14 bertso gutxienez, eta 40 gehienez.
- **Lanak aurkezteko epea eta tokia:** 2018ko apirilaren 30eko 14:00ak arte, Gaztediaren Etxeko Gazteendako Informazio Bulegoan (Zangoza k., 30).
- **Lanen ezaugarriak:**
 - Egileek lan bana aurkezten ahal dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izanen dute, gaztelaniaz edo euskaraz idatzia, eta jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.
 - Testu bera ezin izanen da bi hizkuntzetan aurkeztu.
- **Sariak:** hiru sari modalitate eta hizkuntza bakoitzeko; 500 euroko saria lehenengo sariendako; 250ekoa, bigarrenendako; eta 150ekoa, hirugarren sariendako. Epaimahaiak bi accesit eman ditzake modalitate eta kategoria bakoitzeko, bakoitza 100 eurokoa.

Iruñean, 2018ko martxoaren 23an.

